

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Autokarabanentzako zerbitzugunea arautzeko udal Araudia**

Bermeoko Udalak, 2022ko uztailaren 29an izandako Osoko Bilkuran, autokarabanentzako zerbitzugunea arautzeko Udal Araudia behin betiko onartzea ebatzi zuen. Hori ikusita, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, argitaratu egiten da.

Bermeon, 2022ko abuztuaren 2an. — Alkateordea, Idoia Platas Arenaza

**AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEA ARAUTZEKO ARAUDIA**

1428/2003 Errege Dekretuak, azaroaren 21ekoa, zirkulazio-araudi orokorra onartze-ko dena, betiere, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua onartu, eta garatzen duenak, 93. artikuluan honako hau xedatzen du:

«1. Herri barruko bideetan gelditzeko eta aparkatzeko araubidea uda-ordenantzen bidez arautuko da, eta zirkulazioa ez oztopatzeko behar diren neurriak hartuko dira, hala nola, aparkaldiaren iraupena mugatzeko ordutegiak, eta beste neurri zuzentzaile batzuk ibilgailuak bertatik kendu eta gordailuan uztea barne, gidaria nor den jakin arte, aparkaldi mugatuko eremuetan aparkatzeko gaitzen duen titulurik gabe daudenean, edo baimendutako denboratik gora daudenean (Testu artikulatuaren 38.4 artikulua).

2. Udal ordenantzak inolaz ere ezin dira araudi honen aginduen aurka jarri, ez eta aginduok aldatu, hutsaldu edo oker ulertzeko biderik eragin.»

Bermeoko Udalak, turismoa sustatzeko asmoa duela eta, jabari publikoan autokarabanentzako lekua gorde du eta honen erabilera ordenantza bidez arautu behar du prestatutako lekuaren erabilera aproposa eta bidezko txandaketa bermatzeko.

**I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Xedea**

Ordenantza honen xedea da aldi baterako geratzen diren edo lekuz leku doazen autokarabanen aparkaldia bereziki horretarako prestatutako lekuan arautzea, erabilera aproposa eta bidezko txandaketa bermatzeko helburuarekin.

**2. artikulua. — Definizioa**

Ordenantza honen arabera autokarabanentzako egokitutako espazioa izango da jabari publikoko autokarabanak aparkatzeko bereziki atondutako gunea eta aparkatzeko plaza guztiak autokarabanentzako erreserbatu dituenak, hau da, bizitoki-ibilgailu bezala homologatutako ibilgailuak.

Autokarabanentzako hartuko dira ibilgailuen fitxa teknikoaren honako zenbaki hauek:

(Ibilgailuen Arau Orokorraren II. eranskina):

- 2448 (furgoneta mistoa).
- 3148 (ibilgailu mistoa).
- 3200 (3500 kg edo gutxiagoko BGM duen zehaztu gabeko autokarabana).
- 3248 (3500 kg edo gutxiagoko BGM duen autokarabana mistoa).
- 3300 (3500 kg baino gehiagoko BGM duen zehaztu gabeko autokarabana).
- 3348 (BGM duen autokarabana).

Gainontzeko ibilgailuek debekatuta izango dute autokarabanentzako zerbitzugunean sartzea.

**3. artikulua. — Aparkatzeko baldintzak**

Aparkatzeko orduan, autokarabanek momentu oro errespetatu beharko dituzte lurzoru markatutako toki-mugak, zirkulazioa oztopatu barik eta gainontzeko erabiltzaileen zati arriskurik sortu barik.

Erabiltzaileek gune bat izango dute autokarabanek eta bizileku-ibilgailuek sortutako ur grisak husteko. Deposituak husteko gunean ezin da aparkatu, eta oztopatutako gabe egon beharko da proposatutako helbururako erabiltzen ez den bitartean Debekatuta geratzen da honako elementu hauek kanpora ateratzea: toloak, auto karabana egonkortzeko hankak, mahaiak, jarlekuak edo etxeko beste edozein altzari, arropa esekilekuak hala nola, edozein motatako isurketa egitea.



Aldiz, autokarabana aireztatzeko leihoak kanpo aldera zabal daitezke, hala nola, sabai eta sabai-leihoak.

Erabiltzaileak autokarabana barruan gera daitezke, barrukoak kanpoan eraginik ez badu.

Debekatuta dago kanpaldi librea bai gunean bertan, bai inguruetan.

Berriaz, debekatuta dago beste edozein ibilgailu garbitzea, edo behar ez bezala edo aurreikusita ez dagoen beste edozein helbururako erabiltzea.

Erabiltzaileek, gunea erabili ondoren, berau egoera higieniko onenetan utzi beharko dute eta ezingo dute zaratekin molestatu berdin delarik zarata-iturria, bereziki irrati, telebista eta sorgailu-hotza, edo etxe-abereena.

Edozein gorabehera tekniko, matxura, akats, gabezia edo erabilera desegoki gertatuz gero, erabiltzaileek lehenbailehen jakinarazi beharko diote Udalari, instalazioen erabilera egokia bermatzeko Bermeoko Autokarabanentzako zerbitzugunea ez da zaindutako gunea, ondorioz, Bermeoko Udalak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik gunean aparkatutako autokarabanetan gerta litezkeen gertaera, lapurreta edo antzekoengatik.

Zerbitzu-guneetako erabiltzaileek men egingo diote udalak eremua zaintzeko, babes-teko, errespetatzeko eta auzotartasun ona ezartzeko egindako edozein argibideri. Era berean, Udalak edozein unetan xedatu ahal izango du zerbitzuguneak beste erabilera batzuetarako izatea, baina horrek ez die inolako kalte-ordainik ekarriko erabiltzaileei.

#### **4. artikulua. — *Aparkaldirako gehienezko egonaldia***

Gehienezko egonaldia 72 ordukoa izango da aparkatzen duenetik kontatzen hasita ateratzen den arte. Bakar bakarrik ezinbesteko edo behar-beharrezko kasuetan gainditu ahal izango da baimendutako gehienezko egonaldia, eta hori gainditzeko aurretik alkatearen baimena beharko da.

Irten eta 72 ordu igaro ondoren, ezin izango du autokarabanen zerbitzugune barruan berriro aparkatu 7 egun igaro arte, autokarabanen zerbitzugunearen barruko espazioak txandakatzeko.

Erabiltzeko gehienezko epea zenbatzeko, Udaltzaingoak kontrolak egingo ditu egunero.

#### **5. artikulua. — *Ematen diren zerbitzuak***

Autokarabanentzako Zerbitzuguneak honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Elektrizitatea.
- Ur grisak eta baltzak isurtzeko lekua.
- Ur edangarria hartzeko lekua.

Bermeoko Udalak emandako zerbitzuagatik erabiltzaileak ordaindu beharko lukeen zenbatekoa dagokion testu arautzailean jasoko da.

#### **6. artikulua. — *Eskumena eta zehapen-prozedura. Arau-hausteak***

Alkateak edo honek izendatzen duen pertsonak izango du zehapen-prozedura has-teko eta erabakitzeko eskumena.

Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteen zehapen-prozedura bideratuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta berarekin bat datozen arauekin bat etorritik.

##### **A) *Arau-hauste arinak dira***

1. Adierazitako noranzkoan edo ibilgailu bakoitzarentzat mugatutako eremuetatik kanpo jartzea.
2. Kanpaldi librea egitea eta autokarabanaren perimetrotik kanpora elementuak instalatzea, beste batzuen artean: toldoak, mahaia, jarlekuak, egonkortzeko hankak, arropa esekilekuak edo etxeko beste edozein altzari.



3. Ur grisak eta baltzak husteko, ur edangarria hartzeko eta bateriak kargatzeko guneetan behar baino denbora gehiago egitea beste erabiltzaile batzuei erabilera oztopatuz.
4. Zarata gogaikarriak egitea sektoreko legeriaren arabera ezarritako ordutegietatik kanpo.
5. Autokarabanan zerbitzuguneko baliabideak erabiliz ibilgailua garbitzea
6. Udalak funtzionamendu ona, espazio publikoaren eta bertako ekipamenduaren eta azpiegituren eta bizikidetzaren zainketa eta mantentze-beharretarako emondako edozein agindu ez betetzea.
7. Larrizat jotzen ez den beste edozein.

**B) Arau-hauste larriak dira**

1. Autokarabanei zerbitzua emoteko baino ez diren ur grisak eta baltzak husteko, ur edangarria hartzeko eta bateriak kargatzeko zerbitzuak aurreikusitakorako ez den beste zerbitzetarako erabiltzea.
2. Hondakin likidoak edo solidoak, gurata, isurtzeko lekuetatik kanpora botatzea.
3. Hiri altzariak hondatzea.
4. Bertan egoteko onartutako denbora baino gehiago egotea, hala nola, baimena ez duten beste ibilgailu batzuk aparkatzea edo txarto aparkatuta egotea gainontzeko erabiltzaileei zerbitzuen erabilera oztopatuz.
5. Ibilgailuen zirkulazioa erabat oztopatzea, justifikatutako ezinbesteko arrazoirik gabe.
6. Arau-haustea egin duen ibilgailuaren titularrak edo errentariak arau-haustea egin duen gidaria egiazki identifikatzeko betebeharra ez betetzea.

**7. artikulua. — Zehapenak**

Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteen zehapenak honako hauek dira:

Arau-hauste arinei 80,00 euroko isuna ezarriko zaie eta arau-hauste larriei 200,00 euro.

Ibilgailua bide publikoa oztopatzen ari bada, ibilgailua arau-haustea egin duen bide publikotik kenduko da.

Arau-haustea ez badu egiaztatzen ohiko bizilekua Espainian duela, salatzailak isunaren zenbatekoa ezarriko du behin behinean, eta ibilgailua ibilgetu egingo du, ordaindu dela egiaztatu arte.

Arau-hausteen erantzukizuna arau-haustearen egitatearen egilearena izango da zuzenean.

Hala badagokio, arau-haustea egin duen ibilgailuaren titularrak edo errentariak, behar bezala eskatuta, arau-haustea egin duen gidaria egiazki identifikatzeko betebeharra du. Betebehar hori betetzen ez badu, 200 euro arteko isuna ezarriko zaio, arau-hauste larri baten egile izateagatik.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, behin betiko onespeneraren erabakia eta ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 laneguneko epea pasata jarriko da indarrean.